


berriak

Triforio

-tik



araba
álava



Goizargi Gospel Choir



Basabi

“Kontzertuan eta Irekita” nobedadeekin itzuliko da



Santa Maria Katedraleko Elizpea musikaz beteko da berriro uztailan, bi nobedadeekin itzuliko den “Kontzertuan eta Irekita” ekimenarekin: kontzertuak uztailera bi asteburutan bilduko dira, eta hasiera ordua 19:30etara aurreratuko da. Musika-eskaintzak, beti bezala, barietatea eta kalitatea agintzen ditu.

Lehenengo kontzertua Goizargi Gospel Choirrek emango du uztailaren 21ean. Euskal taldea estilo horren erreferentzietako bat da, bere energia, indar eta kalitatearengatik. Uztailaren 22an, larunbata, Juan Valderrama abeslariak “El diván del Tamarit”, Carlos Cának musikatutako Federico García Lorcaen poema-bilduma interpretatuko du.

Uztailaren 28rako programatutako hurrengo kontzertuak EMEKI izena darama, eta Basabi taldearen eta Andromachi Kouforgiorgou abeslari greziararen arteko lankidetzaren proiektua da. Proposamen hori kultura ezberdinetako kantutegi tradizionalaren sehaska abestietan oinarritzen da. Azkenik, uztailaren 29an, larunbatean, Gasteizera bere abesti berri eta



Caco Senante

arrakastatsu guztiak biltzen dituen “Íntimamente...” ikuskizuna ekarriko duen Caco Senante kantautore kanariararen txanda izango da. Gainera, kantautore kanariarrek omenaldi txiki bat egingo dio 2022ko “Kontzertuan eta Irekita” ekimenean eszenatoki hori bera zapaldu zuen Pablo Milanes kideari. Ikus-entzuleek 10 eurotan erosi ahal izango dituzte sarrerak, www.kontzertuanetairekita.eus webgunean edo Bisitarien Zentroan.



Juan Valderrama

Bestalde, urtero bezala, Fundazioak zenbait bonu eta sarrera gorde ditu bazkideentzat prezio merkean (24 euro lau kontzertuetarako bonua eta 8 euro kontzertua).

Horretarako, Bisitarien Zentrora joan behar duzue edo **945 255135 telefono-zenbakira deitu uztailaren 14a baino lehen**. Erreserba-aukera hori ez dago webgunean eskuragarri.

Irati Cernadas argazkilariak Santa Maria Katedrala Fundazioa beka eskuratu du

Irati Cernadas gasteiztarrak irabazi du Santa Maria Katedrala Fundazioa Beka. Beka horrek urtebetez finantzatzen du eremu horretan kezkek eta gaitasunak dituen pertsona baten argazki-prestakuntza, dagoeneko martxan dagoen bere argazki-proiektua gauzatu ahal izateko.

Beka ematearen iragarkia ekainaren 11n egin zen, Autoreen Argazkigintzaren 'Jardín Remoto Experience' I. Sinposio Nazionala dela eta.

Beka emateko ardurazkoen batzordeak irudia sortzeko grina, argazkigintza aztertzeke interesa eta jarrera ausart eta irmoa balioetsi zituen.

Aukera honi esker, Irati Cernadasek hamabi hilabetez (2023ko ekaina – 2024ko ekaina) argazkigintzaren 'Jardín Remoto' metaber-tsoan doan trebatzen jarraitu ahal izango du, eta Gustavo Bravo argazkilari eta argazkigintza irakaslearen argazki-proiektuaren tutoretzaz gozatu ahal izango du.



Katedralari buruzko hitzaldia Burgosko Aparejadoreen Elkargoan

Zaharberritzearen San Juan de Ortega Astea dela eta, Fernando González Lópezek, Rafael Vega Construcciones enpresako arkitekto tekniko eta obra-buruak, "Gasteizko Santa Maria Katedraleko estalkien zaharberritzea" gaiari buruzko hitzaldia eman zuen joan den ekainaren 9an Burgosko aparejadoreen COATIEBU elkargoan. Hitzaldi horretan, Santa Maria Katedrala Fundazioaren bulego teknikoak idatzitako zaharberritze proiektuaren ibilbidea egin zen egikaritze osoan zehar.



"Zinema elizpean" ekimenak badu programazioa

Uztaileko azken asteburuak emango dio hasiera "Zinema elizpean" ekimenaren programazioari. Kultura Kalean eta Laboral Kutxaren eskutik datorren ekimen horrek Santa Maria plaza argituko du ostiral eta larunbatetako udako gauean, familia osoari zuzendutako lan arrakastatsu ezagunenetako batzuekin. Zikloa film hauek osatzen dute:

Uztailak 28 / 22:00etan: **Bidean Jarraituz**

Abuztuak 25 / 21: 15ean:

Regreso al futuro

Abuztuak 26 / 21: 15ean

Padre no hay más que uno 3

Irailak 2 / 21:15ean:

Top Gun Maverick



Bisita gidatuen programak eta Katedraleko Aterpetxeak, Eusko Jaurlaritzak Basquetourren eta **Euskal Turismoaren Etika Batzordearen** bidez ematen dituen Euskadiko Turismoaren Kode Etikoaren ziurtagiriak berriro dituzte. Joan den ekainaren 28an ziurtagiri berriak banatu zitzaizkien sektoreko enpresei eta operadoreei, eta, beraz, dagoeneko 621 erakunde jaso dute sari horren aintzatespena Euskadi osoan.

